

**II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****AMURRIOKO UDALA****Behin-behineko onarpena ematea hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuaren tasaren 2016ko bigarren hiruhilekoko zerga erroldari**

## Ediktua

Nik, Josune Irabien Marigortak, Amurrioko (Araba) Udaleko alkate naizen honek,

Jakinarazten dut:

Amurrioko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak, 2016ko azaroaren 3ko bilkuran, behin-behineko onarpena eman ziola hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuaren tasaren 2016ko bigarren hiruhilekoko zerga erroldari (Esp.: 16211C2271).

Espediente hori jendaurrean jartzen da udalaren kontuhartzaitetza atalean 15 egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, aztertu eta egoki jotzen diren erreklamazioak eta oharrak aurkeztu ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onartutzat joko da.

Amurrio, 2016ko azaroaren 4a

*Alkatea*

**JOSUNE IRABIEN MARIGORTA**